

## **COVID-19AREN DETEKZIORAKO ETA KONTAKTU ESTUEN KUDEAKETARAKO OSASUN-PROTOKOLO BERRIARI BURUZKO OHIKO ZALANTZAK**

2022ko urtarrilaren 14an eguneratua

**Zein dira pertsona bat kasu positiboa izan daitekeela susmatzeko sintomak eta osasun-sistemarekin harremanetan jarri behar dela jakiteko?**

38 gradu baino gehiagoko sukarra, arnasteko zailtasuna eta bat-bateko eztula infekzio baten sintomak izatea. Hala bada, pertsonak osasun-sistemarekin harremanetan jarri behar dira.

Diagnostiko probak egitea sintomatologia larriagoa duten kasuetan, pertsona zaurgarrietan eta ingurune kalteberetan diharduten kasuetan lehenetsiko da.

**Noiz da pertsona bat kasu positiboa?**

Kasu bat positibotzat joko da balidatutako proba diagnostiko batek hala erabakitzen duenean (PCR, antígeno-testa, eta, eragin handiko egungo testuinguruan, autotestak). Proba horiek Nafarroako osasun-sistemako maila eta zentro desberdinetan egin daitezke edo beste laborategi akreditatu batzuetan. Bide hauetatik, positiboa zuzenean osasun-sisteman sartzen da.

Farmazietan saldutako antígeno autotesten kasuan, emaitza lehenetasunez farmaziaren bidez bidali behar da, baina baita herritarrak berak ere bidali dezake, sisteman sartu eta protokoloaren hurrengo urratsak aktibatuz. Emaitza positiboa posta helbide honetara bidali behar da: [antigenosfarmacia@navarr.es](mailto:antigenosfarmacia@navarr.es). Laneko baja behar izanez gero, **konfirmazio proba gainbegiratu** egingen da, dokumentu honen amaieran azaltzen den bezala, laneko baja eta alta atalean.

**Zer egin behar du kasu positiboa den pertsonak?**

Proba egin eta emaitza eskuratu bezain laster, bi SMS jasoko dira: bat diagnostikoa baieztatzeko eta isolamenduari buruzko jarraibideekin, gainera, kontaktu estuei jakinarazteko adierazten da; eta bigarren bat, bere kontaktu estuei bidaltzeko bete beharreko neurriekin, bakoitzaren txerto-egoeraren arabera.

Hortik aurrera, emaitza positiboa historia klinikoan sartuko da eta paziente positiboak bere prozesua jarraituko du bere osasun etxearekin harremanetan, bertatik emngo biatzaio jarraipen klinikoa.

**Zer gertatzen da paziente positiboak sintoma arinak baditu eta arrisku-faktorarik ez badu?**

Positiboa den pazienteak sintoma arinak baditu eta arrisku-faktorarik ez badu, osasun-zentroak bere egoeraren jarraipena egingo du (gutxienez, hasierako deia), **isolamendu**-neurrien berri emateko (zer egin behar den sintomak hasi eta **7 egunez**, betiere sukarra eta **koadro klinikoa konpondu eta 3 egun igaro arte**, adinekoen zentroetan eta beste zentro soziosanitario batzuetan gertatzen diren kasu asintomatiko edo arinak barne). Baita alarma-sintomen inguruko informazioa luzatzeko, horiek agertuz gero, pazienteak osasun-sistemarekin harremanetan jarriko da, aurrez aurreko arreta jaso edo, beharrezkoa bada, ospitale-sistemara deribazioa egiteko.

Osasun sistemarekin harremanetan jarri beharko da okerrera eginez gero edo honelako sintomak agertzen direnean:

- Egoera orokorra okertzea.
- 38°C-tik gorako sukarra izatea etengabe.
- Arnasa hartzeko zailtasuna, arnasestua edo aire faltaren sentsazioa.
- Eztul gehiago egitea edo karkaxa agertzea.
- Bularreko min edo presio iraunkorra.
- Oka egitea edo beherakoa izatea etengabe.
- Buruko mina izatea etengabe.
- Nahasmena, zorabioa edo logura.

Gogoan izan garrantzitsua dela isolamendu-baldintzei eustea, gutxienez **7 egun** igaro arte eta **arreta handiz jokatu** behar da, pertsona positiboen kasuan, gizarte-elkarreraginak ahalik eta gehien murriztuz, maskara etengabe erabiliz eta, batez ere, pertsona zaurgarriekin kontaktuak saihesten, sintomak hasi edo diagnostikoa egin eta **10 egunera arte**, kasu asintomatikoetan. Erreferentziazko osasun-profesionalek emandako jarraibideei jarraituz, eskuak maiz garbitu behar dira; likidoak ugari irentsi; temperatura maiz hartu; atsedena hartu; eta elikadura zaindu.

Bilakaera aldekoa bada, ohiko bizitzara itzuliko da, isolamendutik irteteko proba egin beharrik gabe.

### **Zer gertatzen da paziente positiboak sintoma larriak baditu eta arrisku-faktoreak baditu?**

Kasu horietan, deiaren edo hasierako aurrez aurreko kontsultaren ondoren, pazientearen banakako jarraipena egingo da. Arreta berezia behar dute ondoko baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak:

- Immunoeskasiaren egoera, transplantatuak eta immunosupresioaren tratamenduan daudenak.
- Giltzurrun-gutxiegitasuna (3-6 estadia).

- Obesitate morbida (GMI-30).
- Neoplasia hematologiko aktiboa edo tumore solido gaiztoa.
- Adinekoa izatea edo adineko hauskorak.
- Biriketako Gaixotasun Buxatzaile Kronikoak (BGBK).
- Biriketako fibrosia.
- Haurdunaldiko hirugarren hiruhilekoa eta erdiberriaroa (erditze ondoko 6 aste).

### **Noiz jotzen da pertsona bat kontaktu estutzat?**

Kontaktu estuak aurretik ezaguna den esanhaia mantentzen du. Kasu positibo batekin leku berean babesik gabe (maskararik gabe) egon den edozein pertsona, 2 metro baino gutxiagoko distantziarekin eta, guztira, 24 orduz, 15 minutu baino gehiagoko denbora metatua egon dena, bereziki leku itxietan, jendeztatuetan, denbora asko eta/edo transmisio handiagoa eragiten duten jarduerak egon badira, hala nola ozenki hitz egitea, kantatzea, etab.

Protokoloa egungo egoerara egokitzen den bitartean, ez da kontaktu estuei deituko. Kasu positiboa den pertsonak jakinaraziko die proban positiboa eman duela, eta harremana izan duela haiekin, eta, azaldu den bezala, SMSa bidaliko diela jarduteko jarraibideekin, beren txertatze egoeraren arabera. Gainera, transmisio komunitarioaren testuinguru honetan, kontaktu estuak direnak sintomak ez badituzte, bere txertatze egoera edozein dela ere, ez da proba diagnostikorik egingo.

Nolanahi ere, kontaktu estuek arreta jarriko dute COVID bidezko infekzioarekin bateragarriak diren sintomak agertzen diren (sukarra, arnasa hartzeko zailtasuna eta bat-bateko eztula). Hauek agertzekotan berehala isolatu beharko dute beren etxean eta osasun zerbitzuarekin harremanetan jarri proba bat egin diezaieten. Zalantzarik izanez gero, kontaktu estuak posta elektronikoko bidez jar daitezke harremanetan: [gestiondecontactos@navarra.es](mailto:gestiondecontactos@navarra.es).

### **Zer neurri hartu behar ditu txertaketa osoa duen kontaktu estu batek?**

Kontaktu estuak txertaketa osoa jaso badu eta immunodeprimitua ez bada, ez du koarentenarik egin behar. Halakoetan eta izandako **azken esposizotik 10 egunetara, prebentzio-neurri oso sendoei eustea** gomendatzen da: soilik funtsezko jarduerak egin behar dira, gizarte-elkarreraginak ahalik eta gehien murriztea, maskara une oro erabiltzea eta, bereziki, kalteberak diren pertsonekin kontaktua saihestu behar da. Sintomak agertu gabe, ez da behar proba diagnostikorik.

### **Zer neurri hartu behar ditu txertaketa osoa jaso ez duen kontaktu estu batek?**

Kontaktu estuak ez badu txertoaren jarraibide osoa jaso, berretsitako kasu positibo batekin azken kontaktua izan eta hurrengo **7 egunetan koarentena** egin behar du, beti ere sintomak agertzen ez diren bitartean. Koarentenan etxean egon behar du eta bere

osasun egoera arretaz zainduko du. COVIDarekin bateragarria den edozein sintoma agertzen bada, lehen deskribatu bezala, osasun sistemari jakinaraziko dio.

Pertsona hauen kasuan (txertatu gabeko kontaktu estuak), prozedura kasu positiboen antzekoa izango da, behin kasu positibo batekin prebentzio neurririk gabe egon eta **7 egunen** buruan, koarentena amaitzeko, alta lortzeko eta ohiko bizitza berreskuratzeko ez zaie proba diagnostikorik egingo. Hala ere, positiboarekin egon eta **hurrengo 10 egunetan (korentena bete eta 3 egun** gehiagoz), ohiko bizitza berreskuratu arte, prebentzio-neurri sendoei eustea gomendatzen da, bereziki pertsona ahulekiko elkarreraginean egoterakoan.

### **Nork eska dezake aldi baterako ezintasuna (AE) eta nola tramitatzen dira laneko baja eta alta?**

Bi egoera daude. Bata positiboa izatea da eta bestea, kontaktu estua izatea positiboa bada eta txertoa jartzeko jarraibide osoa ez badu.

Pertsona positiboak laneko baja behar badu, tramitea (bajarena nahiz altarena) une berean eginen da eta profesional sanitarioak eginen du (erizain edo medikuak), pazientearekin harremanetan jartzen dena. Tramiteak azkartzeko eta bilakaera ona bada, baja/alta prozesu hori aldi berean emango da. Alta sintomak edo proba positiboa hasi eta **7 egunera** emango da, eta inoiz ez sukarra edo beste koadro kliniko batzuk izateari utzi eta 3 egun pasa arte. Ez da proba diagnostikorik egingo alta jasotzeko.

Positiboa farmaziako autotest baten bidez diagnostikatu bada, [antigenofarmacia@navarra.es](mailto:antigenofarmacia@navarra.es) helbidearen bidez edo 848 420 020 telefonoaren bidez jakinarazi ondoren, baja beharrezkoa bada, **osasun-sisteman gainbegiraturako proba diagnostiko bat egiteko hitzordua** emango zaio, **emaitza** lan-ondorioetarako baliozkotzeko.

Txertaketa jarraibide osoa jaso ez duten pertsonak, kontaktu estuak badira eta laneko baja behar badute, eskaera posta elektronikoz bidaliko dute: [gestiondecontactos@navarra.es](mailto:gestiondecontactos@navarra.es), ez osasun etxeetara. Pertsona hauentzat administrazio-prozesua antzekoa izango da.

### **Zalantzak argitzeko kontaktua**

Osasun Departamentuak gogorarazi nahi du telefono bat eta posta elektronikoa bat daudela herritarrek hautemate sistemari, kasuei eta kontaktuei buruz dituzten zalantzak argitzeko. Telefono-zenbakia **848 420 020** da eta helbide elektronikoa, [gestiondecontactos@navarra.es](mailto:gestiondecontactos@navarra.es)